

Etxean jaso zuen saria Mercero

- Espainiako Zine Akademiak Ohorezko Goya saria eman dio aurten lasarteoriatarri
- Semeak izan ziren ekitaldian eta berari Alex de la Iglesia eraman zion etxera aurrez

Antonio Mercero zuzendariak jaso du 2010eko Ohorezko Goya saria, zinemaren baitan osatu duen ibilbide ezin hobearengatik. Lasarte-Oriako zinemagilea ez zen aurreko igande gauetan egin zen sari banaketan bertan izan, osasun arazoak direla medio, baina zine Akademiak urtero antolatzen duen galako protagonistetako bat izan zen.

Alex De La Iglesia Bilboko zine zuzendari eta Akademiako presidentek aurretik eraman zion saria bere etxera. Bideo batean jaso zen unea eta Antonio Merceroen esker hitzak entzuteko eta ikusteko aukera izan zuten ekitaldian bertan izan zirenek zein hau telebistatik ikusi zutenek. Zinema zuzendari eta ekoizleak bideoan sariak zoriontsu egin duela adieraztean, Madrileko Udal Kiroldegian burutu zen ekitaldian zirenak zutik jarrita txalo zaparrada eskaini zioten. Une hunkigarria izan zen.

Alex de la Iglesiaekin izan zuen hitzordu honetako bideoaz aparte, Merceroen filmetako zatiak eman ziren, eta baita lasarteoriatarrik urtetan egindako adierazpenen aukeraketa ere.

Zinema eta telesailen zuzendari ezagunak Alzheimer gaixotasuna duela eta ez zuen sari banaketara joaterik izan, baina ekitaldian, zuzenean, bere semeak izan ziren aitaren izenean Ohorezko Goya saria jaso eta haren izenean Akademiaren erabakia eskertzeko: Zuzendaria etxean txanpan kopa batekin ekitaldia ikusten zegoela jakinarazi zuten eta gero "Euriaren Kantua" musikala ikusiko zuela. "Berak dio familiaren ondoan "Singing in the rain" ikusiz hil nahi duela. Alzheimerak duen gauza on bakarra horixe da, "Singing in the rain" bostehun aldiz ikusi arren, beti izango dela lehenengo aldian bezala" kontatu zuen semeetako batek.


Espainiako Zinema Arte eta Zientzia Akademiak saria emateko merituen artean bere zinema-ibilbide ezin hobea nabarmendu du: "ibilbidea arrakastaz eta esperimendu interesgarri gainezka dago eta arlo oso zabalean gainera, bai film labur, erdi eta luzetan. Bestalde, bere estilo eta molde pertsonalarekin umobideaz aparte, Merceroen filmetako zatiak eman ziren, eta baita lasarteoriatarrik urtetan egindako adierazpenen aukeraketa ere.

la 50 urte dara matza zinemaren munduan Antonio Mer-



Antonio Merceroen semeek jaso zuten zuzenean 2010eko Ohorezko Goya saria aitaren izenean.

cerok, 1962an lehen laburra egin zuenetik. 1972ko *La Cabina* lanarekin nazioarte mailan hainbat sari jaso zituen. *Verano Azul* telesailarekin ere arrakasta eskuratu zuen, eta baita *Farmacia de Guardiá* ere. Azken lan arrakastatsua zinemaren *Cuarta Planta* minbizia duten haur batzuei buruzko filma eta 2007ko *¿Y tú quién eres?*, hain juxtu berak egun duen Alzheimer gaixotasunari buruzko filma izan dira. •



KIROLA /6

Leire Zubizarreta eta Iñaki Elizalde Judoan Euskadiko txapeldun ordegeratu ziren Erreterian



2008ko aurrekontuak beste urte batez luzatuko dituela jakin arazi zuen alkatetzak Udal-Batzarrean /3



ETaren biktimen omenezko ekitaldia egin zen astelehenean eta plaka bat jarri dute udalean /4-5



Bideo Lagunak



BEGIRATU GURE ESKAINTZAK !

Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin



Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com